

“EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014-2020 EGF PROGRAMA ERAGILEAREN 2021EKO URTEKO TXOSTENAREN HERRITARRENTZAKO LABURPENA”

Europako Batzordearen 2015eko abuztuaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 EGF Programa Eragilea. Bada, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) arlo sozioekonomikoan eta lan arloan dituen premiak konpontzeari zuzendutako jarduerak jasotzen ditu Programa Eragile horrek. Guztira, 107,65 milioi euroko aurrekontua dauka eskura. Horien erdia (54,12 milioi euro) EBk emango du. Euskal gizartean eragin handiagoa sor eta balio erantsia gaineratu dezaketen jardueretan kontzentratu da eskura zegoen finantzazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak parte hartzen du EAEko EGF Programa Eragilean, eta **hainbat lurralde-eremutako beste eragile** ekonomiko eta sozial batzuek edota gizarte-sektoreak parte hartzea sustatzeko asmoz diseinatu da. Programa eragilearen erakunde onuradunak hautatzeko lehiaketa-prozedura baten bidez eratu zen parte-hartze hori.

Ardatza	Gaia	Erakunde onuradunak
1	Enpleguaren iraunkortasuna eta kalitatea sustatzea, eta lan-mugikortasuna erraztea	Donostiako Sustapena Garapen – Garapen Agentzien Euskal Elkartea ASLE (Euskadiko Lan Sozietateen Elkartea) Vitoria-Gasteizko Udala Bilbao Ekintza
2	Gizarte-inklusioa sustatzea, eta pobrezari nahiz edozein diskriminazio-motari aurre egitea	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea EHLABE EMAÚS Bilbao SCIS Sendotu Aldiberean Suspergintza Elkartea
6	Gizarte-berrikuntza	Lea Artibai Lanbide Heziketako Eskualdeko Eskolako Kooperatiba Elkartea Bizkaiko Foru Aldundia

COVID-19ak sortutako osasun-krisiaren eragina izaten jarraitu du 2021ko urtekoak; beraz, EAEko EGF Programa Eragilearen jarduerak mugikortasun-murrizketetara eta

hurrengo kutsadura-olatueta egokitzen jarraitu behar izan dute; hala, formatu birtualak eta malgutasun-neurri bereziak presente daude oraindik operazioak betearazteko.

Testuinguru horretan, 2020. urtean zehar, hautatutako erakundeek lanean jarraitu dute kalitatezko enplegu jasagarria, gizarteratzea eta berrikuntza sustatzeko, eta pobrezari aurre egiteko, aurten batzuek jarduerarik betearazi ez duten arren, hala nola Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Izan ere, dagoeneko Programa Eragilean parte hartzeko kuota arrakastaz bukatu dute.

Beste urte batez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa zeharka errespetatzeko eta sustatzeko konpromisoarekin jarraitu da, baita aukera-berdintasuna eta diskriminazio eza sustatzeko konpromisoarekin ere, 1304/2013 (EB) Erregelamenduaren 7. eta 8. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2021ean 47 operazio hautatu dira, eta horiei 9.364.472 euroko zenbatekoa dagokie. 2021. urte amaierarako, 328 operazio onartu dira, eta, data horretarako, 71.691.549,89 euroko dagokien proiektuak egiaztatu dira.

Erakunde horiek 2021an egindako jarduerak eta lortutako emaitzak urteko exekuzio-txostenean jaso dira.

1. ardatzaren barruan, langabeen edo azpienplegu-egoeran daudenen lanerako sarbidea hobetzeko lan egin da, prestakuntza-ekintzen bidez, laguntza, prestakuntza eta lan-esperientziarako sarbidea konbinatzen dituzten ibilbide integratuen bidez eta gazteak kontratatzen laguntzeko programen bidez. Era berean, ekintzailetzaren arloan, orientazio-, prestakuntza- eta laguntza-jarduerak egin dira ekintzaileentzat, norbere konturako enplegua eta enpresen sorrera sustatzeko.

Programazio-aldia hasi zenetik, jarduera horiei esker 19.349 pertsonekin lan egin da (9.762 emakume eta 9.587 gizon); horietatik 15.491 langabeak ziren (7.508 emakume eta 7.983 gizon). Gainera, kontuan hartu behar da horien % 29,84k enplegu bat lortu dutela bere partaidetza bukatzean (% 32,25 emakumeak eta % 27,57 gizonak).

2. ardatzaren kasuan (gizarteratzea sustatzeko, eta pobrezari eta edozein diskriminazio-motari aurre egiteko ardatza), gizarteratzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak gizarteratzeko ibilbideak egin dira nagusiki, bai eta gizarte-ekonomia solidarioa erabiltzea ere, enplegu arruntera igarotzea errazteko. Aldi horretan, bazterketa-egoeran edo arriskuan dauden 15.354 pertsonarekin lan egin da (7.290 emakume eta 8.064 gizon), eta horietatik 12.101 langabeak dira (5.841 emakume eta 6.260 gizon). 2. ardatzeko langabeen % 17,96k enplegua lortu du (% 18,72 emakumeen kasuan eta % 18,70 gizonen kasuan).

Azkenik, 6. ardatzari dagokionez, gazte langabeen enplegagarritasuna hobetzera bideratutako programa bat sustatu da, landa-eremuetan talentua mantentzeko eta/edo erakartzeko, bai eta gizarte-berrikuntza sustatzeko programa bat ere. Jarduera horiei esker, 113 pertsonari eman zaie arreta (53 emakume eta 60 gizon), horietatik 53ri 8.1 lehentasunean (16 emakume eta 37 gizon) eta 60ri 9.5 lehentasunean (37 emakume eta 23 gizon). 8.1 lehentasunean, langabeen %82,35ek enplegu bat lortu dute beren partaidetza bukatzean (%92,86 emakumeen kasuan eta %78,38 gizonen kasuan). 9.5 lehentasuneko proiektu berritzaile berrien programan parte hartu duten pertsonen % 88,10ek enplegu bat lortu du operazioak amaitzean (emakumeen % 80,77 eta gizonen % 100).

Laburbilduz, programazio-aldia hasi zenetik, egindako jardueri esker 34.816 pertsonekin lan egin da (17.105 emakume eta 17.711 gizon), horietatik 27.685 langabe (13.389 emakume eta 14.296 gizon). Halaber, 16.539 parte-hartzailek kualifikazioen bat lortu dute (8.278 emakume eta 8.261 gizon), hau da, parte-hartzaileen % 47,50ek kualifikazioen bat lortu dute (% 48,39 emakumeak eta % 46,64 gizonak).

2021. urteko gertakari garrantzitsu bat izan da Euskadiko 2014-2020 EGF Programa Eragilearen birprogramazioa REACT EB baliabide gehigarriak sartzeko. EBko araudiak eta, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko 2020/2021 (EB) Erregelamenduak xedatzen dituzte baliabide horiek.

Birprogramazio-proposamen hau COVID-19aren ondorioak arintzen laguntzean datza nagusiki, bai eta eraldaketa erraztuko duen eta euskal ekonomiaren erresilientzia-gaitasuna indartuko duen susperraldi ekonomikoaren prozesua bultzatzean ere, bereziki bere lan-merkatuarena. Horretarako, REACT EB lehentasuneko ardatz bat sortu da, inbertsio-lehentasun bakarrarekin: R1. «Krisiaren konponbidea erraztea COVID-19aren pandemiaren testuinguruan eta horren ondorio sozialetan, eta ekonomiaren susperraldi berde, digital eta erresilientea prestatzea».

Hala, honako pertsona hauetara zuzendutako ekintzetara bideratu dira baliabideak: ABEEen eraginpean egon direnak, eta COVID-19aren pandemiari aurre egiteko hartu behar izan diren jardueren murrizketei eta mugei lotutako aldi baterako etenaldien edo aldi baterako lan-murrizketen eraginpean egon direnak. Alde horretatik, laguntza eman zaie langileei, autonomoei edo enplegu-zentro berezietan eta laneratzeko enpresetan enplegatutako pertsoneri, diru-sarreraren maila mantentzeko, edo pertsona autonomoen gastuei aurre egiteko (gizarte segurantza kuotak eta alokairu gastuak).

Era berean, enplegurako prestakuntza-neurriak indartuko dira, beren gaitasunak eta trebetasunak lan-merkatuaren beharretara egokitu behar dituzten langabeei edo enplegatuei zuzenduak. Pertsona horiei prestakuntza ematea da helburua, datozen urteetan gauzatu behar den eraldaketa ekonomikora egokitu ahal izateko.

Gainera, luzaroko langabeei enplegua lortzen laguntzeko neurriak garatu dira, eta enpresei pizgarriak eman zaizkie haiek kontratatzeko.

Zerbitzu soziosanitarioak indartzeko ildoan, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak langile epidemiologoak kontratazioa finantzatu da. Langile horiek diagnostikatutako pertsonen kontaktuak arakatzeko arduratu dira, birusaren transmisioa minimizatzeko.

Azkenik, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan irakasle berriak kontratatzen edo dauden orduak gehitzen lagundu da, unibertsitate aurreko maila guztietan aurrez aurreko hezkuntza ziurtatzeko. Horrela, herritar guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera izan dutela bermatu da.